ERANSKINA

2026ko irailaren 18an onartutako 2026-2027 ikasturterako jardubidea osatzeko

3.3.2.- Irakaslearen jarduera-datuak

d) Greba deialdiak direnean, grebaren ondorioz eman gabe geratzen diren eskola-orduek diruz lagundutako jardueran eta dirulaguntzen kudeaketan izango dituzten ondorioak honako hauek izango dira:

1. Jarduera-unitateen eta betetze-mailaren kalkulua:

Grebaren ondorioz eman gabe geratutako eskola-orduak ez dira kontuan hartuko jarduera-unitateak kalkulatzeko eta betetze-maila zehazteko garaian. Beraz, betetze-mailaren kalkulua grebarik egon ez balitz bezala egingo da, eta ordu horiek eman izan balira bezala zenbatuko dira.

2. Dirulaguntzaren kitapena:

Dirulaguntzaren kitapena egitean, ordea, grebaren ondorioz eman gabe geratutako eskola-orduak kontuan hartuko dira ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko.

Hala ere, ordu horiei dagokien deskontua ez da modulu ekonomikoaren % 100ekoa izango, % 85ekoa baizik, portzentaje hori baita langile-gastuei dagokien zatia.

3. Grebaren berri emateko betebeharra:

Greba dela eta eman gabeko eskola-orduak Q87 aplikaziotik kendu beharko dira; hau da Q87 aplikazioan hilabete horretan benetan emandako eskola-orduak soilik jasoko dira.

Horretaz gain, euskaltegi eta autoikaskuntza zentro guztiek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, greba-deialdiaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita 10 laneguneko epean, greba egin duten ala ez adierazteko. Betebehar hori euskaltegi guztiei dagokie, greba egin ala ez, beraz ,grebarik egin ez duten euskaltegiek ere adierazpena aurkeztu beharko dute, grebarik ez dutela egin berariaz adieraziz.

Greba egin duten euskaltegien kasuan, gainera, grebaren ondorioz eman gabe geratu diren eskola-orduen kopurua zehaztu beharko da adierazpen horretan.

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

202___ko _____ren ____ko greba orokorraren ondorioz eman gabeko eskola-orduei eta Q87 aplikazioan aitortutako orduei buruzko adierazpena.

1. Euskaltegiaren eta ordezkariaren datuak

- Euskaltegiaren izena: _____
- IFK: _____
- Titularra den udala edo udal-erakundea: _____
- Adierazpena egiten duenaren izen-abizenak: _____
- Kargua: _____

2. Erantzukizunpeko adierazpena

Nik, goian adierazitako pertsonak, euskaltegiaren ordezkari gisa, nire erantzukizunpean

ADIERAZTEN DUT:

Lehenengoa. 202___ko _____ren _____an egindako greba orokorraren ondorioz, euskaltegiko langileek greba egiteagatik, guztira _____ eskola-ordu eman gabe geratu zirela.

Bigarrena. Eman gabe geratutako eskola-ordu horiek Q87 aplikaziotik kendu direla, eta beraz, aplikazioan hilabete horretan benetan emandako eskola-orduak soilik jasoko dira.

Hirugarrena. Konpromisoa hartzen dut HABEk eskatuz gero adierazitako informazioa egiaztatzeko beharrezkoak diren agiriak eta azalpenak aurkezteko.

Eta horrela jasota gera dadin, erantzukizunpeko adierazpen hau sinatzen dut.

Lekua eta data: _____

Euskaltegiaren ordezkariaren sinadura:

Izen-abizenak: _____

Kargua: _____